

Nafarroako Hondakin Aldizkaria

Alea

6

2017ko MARTXOA

Atalak

Nabarmentzekoak



SUSTATZAILEAK

Nafarroako Gobernua eta Ecoembes, Ecovidrio, Ambilamp, Ecoasimelec, Ecofimática, Ecolec, Ecolum, EcoRAEE, Ecotic, Europako Birziklapen Plataforma eta Tragamóvil.

JATORRIZKO IDEIA ETA EDIZIOA

Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A. (GAN-NIK)

LAGUNTZAILEAK

Nafarroako Hondakin Partzuergoa
Nafarroako Hondakin Mankomunitateak

LEGE GORDAILUA

NA-1330/2011




Inprimatzekotan, erabili,
mesedez, paper birziklatua eta
inprimatu bi aldeetatik.

SUSTATZAILEAK

GARATZAILEA


Nafarroako Hondakinen Plan berria, 2027ra artekoa

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Hondakinen Plana (NHP) 2017-2027 onetsi du 2016ko abenduan. Planaren oinarriak ekonomia zirkularra eta klima-aldaketaren aurkako borroka dira, eta oinarritzko tresna izanen da Nafarroako hondakinen prebentzio eta kudeaketa politikak datozen urteotan arautzeko.



Plan de Residuos de Navarra 2017-2027 Nafarroako Hondakinak Plana

Agiri hau aurreko Planaren ordezkoa da. Izan ere, Plan hura 2010-2020 artekoa zen, eta Auzitegi Gorenak balio gabetu zuen. Orain onetsi berri den Plana, gainera, bat dator Hondakinei buruzko 2008/98/CE Esparru Zuzentarauarekin nahiz Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearekin, eta era berean, Hondakinei buruzko 2016-2022ko Estatuko Esparru Planarekin eta Hondakinen Prebentziorako 2014-2020 Estatu Programarekin.



ARAUDIA



PLANAREN KRONOGRAMA

Plana 2015 eta 2016an prestatu da arloko sektore guztiekin, eta partaidetza-prozesua zabala izan da, Plana ahalik eta adostasun mailarik handienaren emaitza izan zedin.

Prozesua 2015ean hasi zen, alternatibaren agiria prestatu baino lehen, eta lehen fase hartan ere partaidetzari ateak zabalduta zitzaizkion. Behin Planaren zirriborroa prestatutakoan, partaidetza-prozesua egin zen, 2016ko apiriletik ekainera bitarte, hain zuzen. Partaidetza-prozesuak sei maila eta lau fase izan zituen. Guztira, 29 saio/tauler ireki egin dira, hasierako fasean egindako 9 saio eta jardunaldiak gain. Prozesuan, guztira, 2.365 ekarpen jaso ziren, mankomunitateek eta beste Toki Entitate batzuek aurkeztuak, bai eta enpresek, taldeek, instituzioek eta herritar partikularrek aurkeztuak ere.

Nafarroako Hondakinen Plan berria, 2027ra artekoa

KRONOGRAMA

- HASIERAKO PARTAIDETZA zirriborroa prestatu aurretik

2015eko
Maiatza
Abendua

- PLANAREN ZIRIBORROA PRESTATZEA

2016ko
Otsaila

- PARTAIDETZA PROZESUA zirriborroari buruz

Apirila
Ekaina

- PLANAREN HASIERAKO BERTSIOA
- INGURUMEN AZTERLAN ESTRATEGIKOA
- GOBERNUAREN ERABAKIA, ABUZTUAREN 24koa**


Abuztua

- PLANA JENDAURREAN

Urria

- PLANAREN ONESPENA
- INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA
- GOBERNUAREN ERABAKIA, ABENDUAREN 24koa**

Abendua



ARAUDIA

PARTAIDETZA PROZESUA

1.177

entitate eta pertsona partikularri bidali zaie prozesuan parte hartzeko deialdia

29

saio egin dira Irunberrin, Donezteben, Irurtzunen, Lizarran, Erriberrin, Tuteran eta Iruñean

2.365

ekarpen jaso dira

65

dokumentu jaso dira

231

erantzun galdetegiei

JENDAURREKO FASEA

130

alegazio aurkeztu dira

24

entitatek aurkeztu dituzte alegazioak

Nafarroako Hondakinen Plan berria, 2027ra artekoa

NAFARROAKO HONDAKINEN PLANARI EKARPENAK EGIN DIZKIOTEN ENTITATEAK/PARTIKULARRAK

•%38,21
TALDEAK ETA INSTITUZIOAK

•%65,34
TOKI ENTITATEAK

•%27,15
ENPRESAK

•%15,8
MANKOMUNITATEAK

•%40,22
PARTIKULARRAK



Planaren hasierako bertsioa eta Planaren Ingurumen Azterlan Estrategikoa urriaren 26ra arte jarri ziren jendaurrean, Gobernuak abuztuaren 24an halaxe erabakita. Jendaurrean zegoela, 24 entitatek 130 alegazio aurkeztu zituzten.

ALEGAZIOEN JATORRIA NHPA JENDAURREAN ZEGOELA

•%6,25
KUDEAKETARAKO SISTEMA INTEGRATUAK


•%5,21
PARTIKULARRAK

•%8,33
ELKARTEAK

•%1,4
ALDERDI POLITIKOAK

•%1,4
TALDE EKOLOGISTAK

•%3,13
UDALAK ETA MANKOMUNITATEAK



Alegazioak baloratu ondoren, Planari gehitutako eranskinean sartu ziren, haiei emaniko erantzun bakoitzarekin batera; erantzun bakoitza bere testuinguruan kokatu zen. Behin betiko Plana 2016ko abenduaren 14an onetsi zen.

ARAUDIA

PLANAREN EDUKIA


Planak prebentzioa jarri du erdigunean, horixe baita Nafarroako ezaugarria, eta horrekin batera, kudeaketa publikoaren lidergoa, eta kalitatezko toki enplegua sortzeko gaitasuna lurralde osoan. Kalkuluen arabera, 350 lanpostu inguru sor litezke.

NHParen xedea da Nafarroako gizartea eredugarria izatea ekonomia zirkularrari dagokionean. Ekonomia zirkularrak proposatzen du lehengaiak arduraz erabiltzea, baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea, eta hondakinak murriztu, berrerabili, konpondu eta birziklatzeko araua zirkulu etengabean aplikatzea, naturaren jarduna bera imitatuta.



Nafarroako Hondakin Plan berria, 2027ra artekoa

EUROPAKO HIERARKIA HONDAKINEN KUDEAKETAN



Planaren baitan Prebentzio Programa dago sarturik, bai eta lurzoru kutsatuendako eta hamahiru hondakin-fluxurendako Kudeaketa Plana ere. Honatx hondakin-fluxuak: Etxeko eta merkataritzako hondakinak. Ontziak eta ontzi-hondakinak. Tresna elektriko eta elektroniko hondakinak. Bizitza erabilgarriaren bukaeran dauden ibilgailuak. Bizitza erabilgarriaren bukaeran dauden pneumatikoak. Olio erabiliak. Pilak eta metagailuak. Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak, eta material natural hondeatuak. Araztegiko lohiak. Poliklorobifeniloak eta poliklorotrifenoiloak. Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinak. Hondakin industrialak, eta osasun hondakinak, betiere Nafarroan sortuak eta kudeatuak.

Hondakin gutxiago sortzearen aldeko apustuaren erakusgarri, hondakinak % 10 murriztu nahi dira 2020an, eta % 12, 2027an. Horrela, eragin gutxiago sortuko dira bai in-

gurutumenean, bai giza osasunaren gainean, bai eta substantzia arriskutsu eta kutsagarri gutxiago ere.

Planaren aurrekontua 698.026.510 euro da 2017-2027 epealdirako, etxeko hondakinak kudeatu eta tratatzeari dagokionez. Dirutza horretatik, 149,3 milioi erabiliko dira Planaren neurriak eta ekintzak ezartzeko –azpiegiturako inbertsioak barne–, eta 548,7 milioi, berriz, kudeaketa egiteko, hau da, gaikako bilketa eta tratamendua egiteko.

Dirutzaren % 82 diru publikoen bidez finantzatu da. Honatx dirubide publikoak: bilketari eta tratamenduari loturiko tasak, Nafarroako Gobernuaren ekarpenak, isurpen kanona, eta Tokiko Azpiegituren Plana. Gainerako % 18, berriz, materialak saltzetik etorriko diren ekarpen pribatuak izanen dira.



+
Behiago

ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK

Etxeko eta Merkataritzako Hondakinei dagokienez, Planaren helburu nagusia da biztanleria guztiarengana zabaltzea hondakin organikoen gaikako bilketa derrigorrezkoa, eta hondakinen % 65 gaika biltzea.

Aldi berean, gainerakoaren frakzioa murriztea proposatu du (hau da, etxeko hondakinen frakzio bat da, gaikako bilketak egin ondoren lortzen dena), % 35era jaitsiko baita, eta den-dena tratatuko da zabortegira eraman eta ezabatu baino lehen; horrela, Nafarroa osoan, ez da hondakinik zuzenean botako zabortegira.

Nafarroako 2017 – 2027 aldiko Hondakin Planaren zenbait gako

Gaikako bilketa

- Etxeko eta merkataritzako hondakinen % 65 gaika bilduko dira
- biztanleria guztiarengana zabalduko da hondakin organikoen gaikako bilketa derrigorrezkoa
- Bio-hondakinen % 70 gaika bilduko dira

Enplegua

- 350 enplegu inguru sortzea

Tratamendua

- Gainerako frakzioaren % 100 tratatuko da

Hondakinak

- % 10 gutxiago 2020an, eta % 12 gutxiago 2027an

Gainerakoaren frakzioa

- Gainerakoaren frakzioa murriztuko da, % 67tik % 35era jaitsiko baita

Isurketa

- Zabortegira eramaten den erreusa % 63tik % 25era jaitsiko da

-
Gutxiago

2017ko EKINTZAK

2017an ezarri beharreko neurrien artean nabarmentzekoa da Nafarroako Hondakinei buruzko Lege aurreproiektu bat prestatuko dela. Horrela Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen artean koordinaturik, Legeak etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa egokia bermatu beharko du Nafarroan, eta behar diren diru baliabideak ziurtatuko ditu, bai eta agertoki posibleak ere.

Hondakinak zabortegian ezabatzea galarazteko, kanon bat zehaztu beharko da hondakinak zabortegian ezabatzea zergapetzeko, "sortzen duenak ordaintzen du" ildoarekin bat. ●

2017
↓

Nafarroako Hondakinei buruzko Lege Aurreproiektua

Hondakinen Prebentzioren eta Ekonomia Zirkularraren Bulegoa (HP eta EBB C)

Gai organikoaren gaikako bilketa bultzatzeko estrategia

Nafarroa partaide da “SCREEN” ekonomia zirkularrerako europar proiektuan



SCREEN proiektuak Synergic Circular Economy across European Regions izena du ingelesez eta ekonomia zirkularrerantz jotzeko estrategiak diseinatzeko lagundu nahi die EBeko eskualdeei, espezializazio adimentsua estrategiaren baitan.

Ekimena bi urterako da eta Europar Batasuneko H2020 programaren baitan dago finantzatua. Proiektuaren aurrekontua 1.742.747 euro da. Nafarroari % 8 dagokio; 138.500€, hain zuzen ere

SCREEN proiektuak ekonomia zirkularrerantz jotzeko estrategiak diseinatzeko lagundu nahi die EBeko eskualdeei, espezializazio adimentsua estrategiaren baitan

Nafarroako Gobernuak proiektuan parte hartzen du. Proiektuan Italiako Lazio eskualdea da gidaria, eta bestelako eskualdeak ere dira partaide, hala nola Lazio, Erdialdea (Portugal), Kriti (Grezia), Limburg eta Fryslan (Herbehereak) eta Tampere (Finlandia); bai eta hainbat erakunde ere, hala nola Lonbardiako Unibertsitatea (Italia), Wojewodztwo Lodzkie (Polonia), Agence Regionale de developpement d’investissement et d’innovation (Frantzia), eta Knowledge Transfer Network Limited (Erresuma Batua) enpresa ere bai.



↑ Irudian SCREEN proiektuaren saioa

HONDAKINEN PREBENTZIOA

GARATU BEHARREKO EKINTZAK

Honatx proiektuan aurreikusitako ekintza nagusiak:

- Eskualdeei lagunduko zaie H2020 programan parte hartzen, ekonomia zirkularrari dagokionez: hau da, bonu berritzaileak edo “vouchers” motako mekanismoak aztertuko dira, EBko hainbat eskualdetan arau berdinak bermatze aldera, betiere nazioarteko partzuergoak sortzea sustatzeko, eskualdeko espezializazio adimentsuarekin (RIS3) loturik dauden ekonomia zirkularreko proiektuak eskatze aldera.
- H2020 proiektuaren emaitzetan oinarrituriko ekintzailletza-ekimenak sustatzea: hau da, eskualdeek akordio bat egin dezatela, Europar Batasuneko egiturazko diruekin ekonomia zirkularreko ikuspegia duten proiektuak diruz laguntzeko.
- H2020 inbertsioa ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera aztertzea, ekonomia zirkularra xede duten proposamenak bere osoan edo zati batean “berreskuratuz”: hainbat eskualdetako sinergiak bultzatuko dira, ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarrituriko sektore ekonomikoen trantsiziorako neurriak garatze aldera.

“SCREEN” ekonomia zirkularrerako europar proiektua

SCREEN aims at the definition of a replicable systemic approach towards a transition to Circular Economy in EU regions within the context of the Smart Specialization Strategy, through the identification and implementation of operational synergies between R&I investments from H2020 and the European Structural and Investment Funds, thus contributing to novel future eco-innovative and horizontal business models across different value chains. The concept of the action is to develop a EU reference framework for establish operational synergies between Horizon 2020 and the European Structural and Investment Funds related to Circular Economy by: a) Sustaining the regional actors’ participation at H2020 The mechanism of the “vouchers”, already adopted in the past, will be reinforced and harmonized, in order to ensure common rules in EU regions and therefore encouraging to composition of international Consortia applying for circular

economy projects related to the regional Smart Specialisation. b) Encouraging the entrepreneurial initiatives based on H2020 project’s results The participating Regions will agree about a specific rule in their Structural Funds giving an advantage for those initiatives targeted to the exploitation of the H2020 project results with a circular economy approach. c) Investigating the possibility of maximizing the H2020 investment through a “recovery”(fully or partial) of well ranked unfinanced proposals dealing with circular economy Even if there is a clear presence of several bureaucratic and operational barriers, a possible solution could have an impressive multiplier effect on the H2020 results. The approach of the action is to leverage on growing industry sectors in EU regions to act as a driver also for the less performing ones, through a circular economy approach, and to support the emergence of new actors in the regional economies leading to new or redesigned value chains.

NAFARROAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIA

GARAPEN ARDATZAK

 **IRAUNKORTASUNA**

S3 LEHENTASUNAK

 **ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK
ETA BALIABIDEAK**

2017 - 2019ko ERRONKAK

- 05 **Energia fosilen kontsumoa murriztea**
- 06 **Sektore eolikoa indartzea**
- 07 **Ekonomia Zirkularra sustatzea**

Baztango Udalak eta Bortzirietako nahiz Malerrekako Mankomunitateek prebentzio kanpaina bat abiarazi dute inguruko arrandegiekin elkarlanean

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea 2016ko azaroaren 21etik 26ra egin da eta, haren baitan, hondakin gutxiago sortzeko ekimen bat jarri dute abian Baztango Udalak eta Bortzirietako nahiz Malerrekako Mankomunitateek inguruko arrandegiekin elkarlanean.

Zehazki, plastikozko ontziak (tupperrak edo janari-ontziak) banatu dituzte, hondakinak sortzeak dakartzan arazoan gainean gogoeta eragiteko eta, halaber, gauzak erosten ditugunean hondakinen prebentzioaren irizpidea kontuan har dezagun, gure kontsumo ohiturek eragin handia baitute hondakinen sorreran.



Horrela, inguruko arrandegiekin lagundurik, azaroaren 21etik 25era, 2.175 tupper banatu dira; bat, familia bakoitzeko. Gainera, arrandegira tupperrarekin joan den pertsona bakoitzari zenbaki bat eman zaio zozketa batean parte hartzeko. Saria txartel bat izan da eskualdeko arrandegietan erosteko. Horrela, tokian tokiko erosketan sustatu da, eta hondakin gutxiago sortzea ere bai. Nabarmendu behar da arrandegiekin gogoz parte hartu dutela, eta beren ekimenez, haiek sariaren zati bat eman dutela; hots, eskudirua eta produktu sorta bat.

Denda guztiek bat egin dute proposamenarekin, eta jendeak

arras ongi hartu du. Izan ere, hondakin gutxiago sortzeaz gain, saihestu dira arraina biltzeko papera erabiltzeak eragiten dituen arazoak. Kanpaina abian jarri duten entitateak pentsatzen ari dira bertze zozketa bat egitea udaberrian, ekimenari segida emateko eta jendearen ohituretan aldaketa eragiteko, herritarrek tupperra erabili ohi dezaten.

**Denda guztiek
bat egin dute
proposamenarekin,
eta jendeak arras
ongi hartu du.
Izan ere, hondakin
gutxiago sortzeaz
gain, saihestu dira
arraina biltzeko
papera erabiltzeak
eragiten dituen
arazoak**

HONDAKINEN PREBENTZIOA

Prebentzio Astearen aurreko sei edizioetan, 92 entitatek parte hartu dute Nafarroan (hezkuntza arloko erakundeak, mankomunitateak, gizarte taldeak, hedabideak eta enpresak). Guztira, 130etik gora ekintza egin dituzte, jendea ohartu dadin zeinen garrantzitsua den ahalik eta hondakin gutxien sortzea.

HONDAKINEN PREBENTZIORAKO BERTZE EKINTZA BATZUK ESQUALDEAN

Baztango Udalak eta Bortzirietako nahiz Malerrekako Mankomunitateek jakin badakite hondakin prebentzioa sustatu beharra dagoela eta, horregatik, bertzelako ekintzak garatzen ari dira hondakin gutxiago sortzeko. Horrela, baxera berrerabilgarria daukate toki entitateen, taldeen eta herritar elkarteen eskura besta eta ekitaldietan erabiltzeko; halaber, ogitartekoak biltzeko bilduki bat erabiltzea sustatzen dute ikastetxeetan; eta bertzeak bertze, tamaina handiko hondakin, tresna elektriko eta elektrikoek, eta arroparen berrerabilpena ere bultzatzen dute.

*Hondakinik onena, sortzen ez dena!
¡El mejor residuo es el que no se genera!*

Baztango Udalaren eta Bortzirietako nahiz Malerrekako Mankomunitateen kanpaina hondakin gutxiago sortzeko

Baztango Udalak eta Bortzirietako nahiz Malerrekako Mankomunitateek baxera berrerabilgarria dute eskura entitate eta taldeentzat; halaber, ogitartekoak biltzeko bilduki bat erabiltzea sustatzen dute, eta tamaina handiko hondakin berrerabilpena bultzatzen dute



Etxalar, herri eredugarri!

Hondakin bereizketa eta birziklapena bultzatzeko proiektu pilotua


Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunitatea esperientzia pilotu bat egiten ari da Etxalarren, herria erreferentzia izan dadin hondakin bereizketan eta birziklapenean. Horretarako, hainbat ekintza egin dira. Hona hemen:

- Toki bat moldatu da lorategietako eta kimaketa hondarrak botatzeko,
- "Garbigune ttikia" izeneko etxola paratu da hondakin bereziak biltzeko,
- hondakin osagaiak aztertu dira, eta ikusi da gainerako frakzioarendako zaborrontzietan bildutakoaren % 90 birziklatzen ahal dela,
- gune berri bat paratu da auzoko konpostajea egiteko,
- jendea kontzientziatzeko kanpaina bat egin da, eta haren baitan, etxez etxe joan dira familia guztiei informazioa emateko,
- zenbait tokitan, zaborrontzi gehiago paratu dira ontziak eta paper-kartoi gehiago biltzeko,
- proba pilotu bat egin da, Nafarroan aitzindaria, zaborrontzi berdeei (gainerakoen frakzioa) tapa txikiago bat paratzeko, hondakinak nahasita botatzen ez segitzeko.


Proba pilotua ongi ateratzen bada, Mankomunitateak neurri berberak ezarriko ditu gainerako herrietan.

Autokonpostajea eta bio-hondakinen gaikako bilketa sendo doaz aurrerantz

Nabarmen egin du aurrera 2015ean gai organikoaren gaikako bilketak, eta dagoenekoz bederatzi Mankomunitatek kudeatzen dituzte beren hondakinak autokonpostajearen bidez edo/eta bio-hondakinak gaika bilduz



NAFARROA KONPOSTGINTZAN



AUTOKONPOSTAJEAN ARI DIREN FAMILIAK

12.600tik gora familiak, hau da, Nafarroako biztanleriaren % 6k, parte hartu dute autokonpostajearen: 7.759 etxe-ko konpostajearen, eta 4.852, auzokoan. Mankomunitate guztiek etxe-ko konpostajea bultzatu dute, eta bederatzik, auzokoa (Bortziriak, Baztan, Malerreka, Irati, Iruña, Mendialdea, Sakana, Izarbeibar eta Baztango Udala). Kalkuluen arabera, izena emandakoen % 25ak parte hartzen du egiazki.

ETXEKOA ▲ 7.759

AUZOKOA ● 4.852

GUZTIRA
12.611

Nafar biztanleriaren % 6



Nafar biztanleriaren % 40k -256.870 lagunek- heldu diote bio-hondakinen gaikako bilketari

Jurramendiko Mankomunitatea 1993an hasi zen bio-hondakinak gaika biltzen. 2013ko uztailean, berriz, Sakanako Mankomunitatea. Gero, 2015eko otsailean, Baztango Udalak eta Bortzirietako nahiz Malerrekako Mankomunitateek gai organikoaren gaikako bilketa ezarri zuten horrelako hondakin aunitz sortzen zituzten sektoreetan. Izarbeibarko eta Mairaga Mankomunitateak izan dira azkenak ezartzen, 2015eko ekainean eta urrian, hurrenez hurren.

NAFARROAK BERE HONDAKINAK GAIKA BILTZEN DITU

Sakana

Atez atekoa

Guztira **12.714**

Jurramendi

Sistema heze-lehorra
(4 edukiontzi)

Guztira **52.335**

MCP

5. edukiontzi
bereizia

Guztira **146.101**

Izarbeibar

5. edukiontzi
bereizia

Guztira **7.452**

Mairaga

5. edukiontzi
bereizia

Guztira **15.443**

Erriberagoien

5. edukiontzi
bereizia

Guztira **22.725**

Erribera

5. edukiontzi
bereizia

Guztira **99**

Baztango Udalak, eta Bortzirietako nahiz Malerrekako Mankomunitateek gai organikoaren gaikako bilketa ezarri dute horrelako hondakin aunitz sortzen dituzten sektoreetan

Nafarroan gaikako lau bilketa eredu daude: 5. Edukiontzi bereizia; 5. Edukiontzi bereizi gabea; sistema hezea-lehorra (4 edukiontziak) eta Atez atekoa.


BIZTANLERIA GUZTIRA

192.873

Nafar biztanleriaren % 40

BILDUTAKO BIO-HONDAKINAK (AUTOKONPOSTATUAK ETA GAIKA BILDUTAKOAK)

KOPURUA t



↑ Autokonpostajea zenbat izan den kalkulatzeko, kontuan hartzen da Iruñerriko Mankomunitatearen 2013ko autokonpostaje ratioa, 223 Kg./pertsona-urteko, eta Hondakin Partzuergoaren datua: 2,8 pertsona familia bakoitzeko. Jurramendiri dagokionez, eredia mankomunitate osoan dago ezarria; horregatik, biztanleriaren % 100 hartzen da kontuan



Bio-hondakin guztien % 16 biltzen dira gaika, barne direla, batetik, Juarramendin, Sakanan, Iruñerrian eta Erriberagoien gaika (desegokirik gabe) biltzen den frakzio organikoa, eta bestetik, etxe eta auzoko autokonpostajea.

Inausketa kontuan hartuta, gai organikoaren bilketa % 23era iritsi da.



Hondakinen kudeaketa Nafarroako naturgune babestuetan

Nafarroan oso garrantzitsua da naturgune babestuen sarea eta haien artean [Nafarroako Natura 2000](#) Sareko 43 guneak dira nabarmentzekoak, hau da, nafar lurraldearen % 27. Erran daiteke, hein handian, gune horiek Naturgune Babestuen Sarea osatzen dutela. Jendea erruz ibiltzen da horrelako tokietan. Hori dela eta, toki garrantzitsuak izan daitezke bisitariak hondakinen kudeaketa egokiaz informatzeko eta sentsibilizatzeko.

Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat egin du Ecoembes eta Ecovidrio enpresekin, eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketa enpresa publikoa arduratzen da hitzarmena garatzeaz. Horren baitan, 2016an, naturgune babestu batzuetako etxeko hondakinen kudeaketa hasi ziren aztertzen; zehazki, zer egiten den Urbasa eta Andiako nahiz Aralar Mendiko Parke Naturaletan eta Kontserbazio Berezikiko Eremuetan. Eta 2017an, Bertizko Jaureerrian egin da.

Ekimenaren bidez, hondakinak ongi kudeatzeko proposamen bat taxutu nahi da, Naturguneen eremuetan egiten denarekin bat, eta era berean, Naturguneetako ingurumen printzipioekin nahiz balioekin bat.



EGUNGO EGOERA

Horrela, ikusi zen hondakinak ez direla gaika biltzen, ez Urbasa-Andian, ez Aralarren; beraz, bilketa hori ezarri beharra dagoela. Horrez gain, inguruz inguruko hesiak hobetu eta berritu behar dira, baita edukiontzien egoera ere. Bertizko Jaureerrian, ordea, hondakinak gaika biltzen dira, eta azpiegitura oro har ongi dago.

Hondakin gehienak ontzi arinak eta beirazko ontziak dira eta, hein txikiagoan, bio-hondakinak, eta papera-kartoa



← Edukiontzia Bertizko Jaurerria Parke Naturalean eta KBEan

↑ Edukiontzia Urbasa-Andiako Parke Naturalean eta KBEan

↑ Edukiontzia Guardetxe inguruan, Aralar Mendiko Parke Naturalean eta KBEan

Hondakin gehienak ontzi arinak eta beirazko ontziak dira eta, hein txikiagoan, bio-hondakinak, eta papera-kartoa.

Hondakin gehienak, jakina, bisitari gehien dabiltzan tokietan sortzen dira, hala nola askaldegietan eta ostalaritza-establezimenduetan. 100.000 lagun inguru joaten dira urtero Urbasa-Andiara, eta 75.000 inguru Bertizko Jaurerria. Baina ez dakigu zenbat bisitari joaten diren Aralarra.

HOBKUNTZAK 2017an

2017ari begira, proposatu da, batetik, materiala banatzea bisitariak sentsibilizatzeko, eta bestetik, gaikako bilketa ezartzea, halakorik ez dagoen lekuetan. Halaber, konpostaje guneak paratu nahi dira, kasuan kasuko mankomunitateekin elkarlanean (Jurramendi eta Sakana Urbasa-Andian; Bortzirriak Bertizen, eta Sakana eta Araxes Garaia Aralarren).

2017ko NEURRIAK

URBASA-ANDIARA	BERTIZ
<ul style="list-style-type: none"> • Ontzi arinak eta beirakiak gaika biltzeko sistema ezartzea: edukiontzia eta berezko seinaleak. • Bisitarien informazioa ematea 	<ul style="list-style-type: none"> • Konpostontzi bat paratzea • Bisitarien informazioa ematea • Edukiontzien seinaleztapena hobetzea

Gune horiek erakusleiko bat izan behar dute ingurumena kudeatzeko eredu iraunkor bat erakusteko, betiere kontserbazio irizpideekin bat; horretan, hondakinen kudeaketa da gakoa.

ELECTRICIDAD SOTO, ELECTRODOMÉSTICOS BEA eta ELECTROPAX, irabazleak tresna elektriko eta elektronikoen birziklapenari buruzko III. Erakusleiho Lehiaketan

“Electricidad Soto” Faltzeskoa, “Electrodomésticos Bea” Iruñekoa, eta “Electropax” Lizarrakoa izan dira denda irabazleak tresna elektriko eta elektronikoen birziklapenari buruzko III. Erakusleiho Lehiaketan; lehen, bigarren eta hirugarren saria eskuratu dute, hurrenez hurren. 2016an lehiaketaren III. edizioa egin da.

Izan ere, hirugarren urtez jarraian, Nafarroako Gobernua eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak kudeatzeko sistema kolektiboak izan dira lehiaketaren bultzatzaileak, Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN) sozietate publikoaren bidez. Horrelako hondakinak birziklatu behar dira, eta denda txikiak eta herritarrak horretan inplikatu nahi dituzte. Hurbileko dendak oso aproposak dira herritarrei TEEHeak zer diren azaltzeko, eta kudeaketa zuzenaren onurak ematen zaizkie ezagutzera.

Nafarroa osoko hamaika establezimenduk parte hartu dute, eta beste hainbat lankidetzan aritu dira. Irabazleek publizitatea jaso dute saritako; hots, ingurumenaren alde zabaldu nahi den mezuari loturiko publizitatea.



Nafarroa osoko hamaika establezimenduk parte hartu dute, eta beste hainbat lankidetzan aritu dira ekimena zabaltzen

↑ Agintariak eta II. Erakusleiho Lehiaketaren denda irabazleak

BIRZIKLAPENA

TEEHen birziklapenari buruzko III. Erakusleiho Lehiaketa

TEEH 

RAEE INVADERS

TEEHen BIRZIKLAPENARI BURUZKO ERAKUSLEIHOen III LEHIAKETA



HAI EK BIRZIKLATZEN LAGUNDUZ, partida irabaziko dugu!

Esan behar da Nafarroako Gobernuak hitzarmena egin duela TEEHen sistema kolektiboekin, hau da, Ambilamp, Ecoasimelec, Ecofimática, Ecolec, Ecolum, ECORAE, Ecotic, ERP-Europako Birziklapen Plataforma- enpresekin, eta lehiaketa hitzarmenaren baitako ekimena dela. Hitzarmenak TEEHak gaika biltzeko sistemak sustatzen ditu, hainbat irizpide erabilita: gizarte onarpena, efizientzia tekniko, eta ingurumen nahiz ekonomia arloko bideragarritasuna. Horretarako, urtero, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak egiten dira; lehiaketa, adibidez

SARITUAK



**LEHEN SARIA
PRIMER PREMIO**



ELECTRICIDAD SOTO
"Recicla que nos comen!"
FALCES

Hainbat munstro egin zituzten, mugikorrek erabilia, eta gogorazten digute zer-nolako arazoa izanen dugun, birziklatzen ez badugu: TEEHek Lurrean dugun lekua jango digute.



**BIGAREN SARIA
SEGUNDO PREMIO**



ELECTRODOMÉSTICOS BEA
"THE RECYCLATORS"
PAMPLONA

Hondakinak bizidun bihurtzen dira, eta haiek dira protagonista: Tiranosaurus RAEEs, Baterisaurus eta Lamparator, espezie birziklatzaileak dira.




**HIRUGARREN SARIA
TERCER PREMIO**



ELECTROPAX
"¿Queremos esto?"
ESTELLA

Proposamenak galdera egin digu ea zer-nolako etorkizuna nahi dugun, eta ea jarraitu behar ote dugun hondakinak baliabidetzat jo gabe, eraldatu eta birziklatu badaitezke ere.




LEHIAKETAN PARTE HARTUTAKO BESTE DENDA BATZUK

Cenor Fermín (Barañain), Cenor Pascual (Iruztun), Cocinas Joma (Erriberri), Electroactiva bazar Hong Kong (Caparrosa), Electrodomésticos Lamberto (Larraga), Electrodomésticos Segura (Corella), Electrohogar Bayona (Iruña), Electroserbicio Muñoz (Corella), Etxe-Tresnak (Leitza), Expert Peralta (Azkoien), Fideltronic (Iruña), Francisco Iradier (Tafalla), Iluminación Helios (Iruña), Milar Burlada (Burlata), Milar Video Ega (Lizarrza), Milar Fernández (Buñuel), Milar San Juan (Iruña), Milar Tafalla (Tafalla) eta Milar Pamplona (Iruña).

TEEHak Nafarroan: bilketa, berrerabilerako prestaketa eta birziklapena

Herritarrek hainbat bide dituzte eskura tresna zaharren kudeaketa egokia errazteko. Adibidez, mankomunitateak moldaturiko bideak erabil ditzakete (atez ateko bilketa eta/edo garbiguneak), edota tresna berria erosten duen dendan utz ditzakete.



2015ean, 4,32 kilo bildu ziren biztanle eta urte bakoitzeko; beraz, bete egin da legeak ezarritako helburua; hots, 4 kg biltzea biztanle eta urte bakoitzeko.

TRESNA ELEKTRIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK BIRZIKLATZEAREN GARRANTZIA

Tresna elektriko eta elektronikoak kudeatzeko sistema integratuek -enpresa horiek jartzen duten diruaren bidez- ziurtatzen dute produktu horiek, behar bezala bildu eta kudeatuko direla behin hondakin bihurtzen direnean, hau da, TEEHei buruzko legeriarekin bat.

Europako Batzordeak "birziklapenaren gizar-tea" bultzatzen jarraitzen du, huraxe tratatzen duten kontsumo-ohituren presioa gora datorren honetan. Horrela, gaur egun, etxetresna elektriko batzuk (tamaina handikoak, adibidez) irizpide ekologikoekin bat diseinatzen dira, hau da, eraginkorrak dira energetikoki eta ur gutxiago kontsumitzen dute, baina haien bizitza erabilgarria bukatutakoan, hondakin bihurtzen dira.

Tresna elektriko eta elektronikoen osagaietan badira material balorizagarriak, eta osagai horiek kontserbatu daitezke etorkizuneko belaunaldiek erabil ditzaten. Izan ere, metaleek, lur arraroek eta beste batzuek balio handia ematen diete hondakin horiei, garestia eta urria baita haien erauzketa; beraz, hiri-meataritza mota baten gisa ikusten da. Horrela, bigarren aldiz bizitzeko aukera ematen zaie hondakin horiei; hau da, ez dira hondakin, baliabide baizik (ekonomia zirkularra). ●

ZENBAKIA

%3,4 98 tona
berrerabilerako prestaketara bideratu ziren

%89,4 2.507 tona
birziklapenera

%7,2 2.507 tona
ezabaketara



Partzuergoak 2017an ezarritako tasek hobariak dituzte



Tasek hondakinen sorkuntza ratioak dituzte kontuan, bai eta gai organikoa gaika biltzeko sistemen ezarpena ere



Nafarroako Hondakinen Planaren partaidetza prozesuan hainbat gauza nabarmendu dira; horietako bat izan da tresna fiskalak sartu beharra Foru Lege baten bidez, Planean ezarritako helburuak beteko badira.

2016ko urrian, Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoaren Zuzendaritza Kontseiluak aldaketa bat onetsi zuen hasiera batez bere ordenantza fiskalean, hots, hiri hondakinak lekuz aldatu, sailkatu, tratatu, balioztatu eta, behar izanez gero, deuseztatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen ordenantza fiskalean, hondakinak sortzeagatik ordainketa ildoarekin bat. Aldaketa abenduan onetsi zen behin betiko.

Horrela, 2017tik aitzinera indarra izanen duten tasa berriek aurrezpenak hartuko dituzte kontuan; hau da, sorkuntza ratio txikiagoek, gai organikoa gaika biltzeko sistema ezartzeak eta udal mailan sartutako beste hobe-

kuntza ba-tzuek eragindako kostu-aurrezpenak.

Gai organikoari dagokionez, etxeko eta auzoko konpostaje programetan ari direnek % 20ko murrizketa izanen dute. Bestalde, gai organikoa gaika biltzeko sistemak dituzten lekuetan, desegokiak kopuruaren arabera murriztuko da tasa, betiere % 15eko lerrun batean, baldin eta desegokiak gehienez % 5 badira, eta %

5ekoa, desegokiak gehienez % 25 badira. Baina desegokiak % 25etik gorakoak badira, ez da murrizketarik izanen.

Gainerakoaren frakzioari dagokionez, Toki Entitateek murrizketak izanen dituzte, tona gutxiago sortzen badute, subjektu pasibo baliokide batek sortzen duen batez bestekoa baino (bildutako euroak gutxira/etxeko tasa). Batez besteko horretatik behera dagoen ehuneko puntu bakoi-tzeko, zerga-oinarriaren ehuneko puntu bat kenduko da. Gehienez ere %5 murriztuko da kontzeptu horrengatik.

Horrela, lehen pauso bat eman da, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa hondakin-tasara eramateko, eta herritarrek nahiz Toki Entitateak saritu ditu, beren hondakinak ongi murriztu eta bereizteko ahaleginagatik. ●

Silvia Ayerberekin solasean, Ecoembesko Hitzarmen Garapeneko zuzendaria

• Zure ikuspegitik, eta 2020ari begira, zer erronka ditugu ontzi arinetan eta kartoizko nahiz paperezko ontzietan, oro har? Eta Nafarroan? Bai Estatu osoan bai Nafarroan, erronka nagusietako bat da bilketa ratioak handitzea bai ontzi arinetarako (plastikozko ontziak, ontzi metalikoak, eta brikak) bai paper eta kartoirako. Izan ere, 2020an etxeko ontzien %80 birziklatzeko helburua finkatu dugu Ecoembesen.

Horren haritik, nafarrak jada doaz birziklapenean oinarrituriko gizar-terantz. Azken zenbakiek horixe erakutsi dute. Adibidez, 2015an soilik, Nafarroan 20.360 tona birziklatu ziren etxeko ontzietan, eta horrek erakusten du nafar gizartea oso engaiatua dagoela ingurumenarekin, etorkizuna iraunkorragoa izan dadin. Horrela, iaz, herritar bakoitzak, bana beste, 19,4 kilo ontzi arin eraman zituen edukiontzi horira, eta 34,2 kilo paperezko nahiz kartoizko ontzietan edukiontzi urdinera. Zenbaki horiek Estatuko batez bestekoaren oso gaineratik daude.



2020an etxeko ontzien %80 birziklatzeko helburua finkatu dugu Ecoembesen

2015an soilik, Nafarroan 20.360 tona birziklatu ziren etxeko ontzietan

Dena dela, lanean jarraitu behar dugu herritarren, administrazioen eta enpresen erantzunkidetasuna bultzatzeko.

Bestalde, badugu beste erronka bat bai Espainian bai Europa guztian; hobetu behar dira hondakinen sorrera eta kudeaketa estatistikak, balorazio irizpideak bateratuz. Gure iritziz, hori behar-beharrezkoa da hondakinei buruzko politika ona egiteko. Eta, jakina, jendea ingurumeneari hezten eta sentsibilizatzen jarraitu beharra dago. Horrelaxe soilik lortuko baitugu birziklapenaren gizartea.

• **Nola lantzen dira kudeaketaren hierarkia maila ezberdinak Ecoembesen?** Gure iritziz, guztiz funtsezkoa da jendea ingurumenaren aldeko balioetan kontzientziatu eta sentsibilizatzea, birziklapenaren helburuak lortzeko; horregatik inbertitzen dugu ingurumen-hezkuntza bultzatzeko kanpainetan. Erabat sinetsita baikaude horixe dela bide bakarra gizartea eraldatze-



Izan ere, gaikako bilketaren aldeko apustuak garapen-eredu iraunkorra lortzea ekarriko du

ko eta garapen iraunkorrean oinarrituriko eredu-rantz jotzeko.

Gainera, Ecoembesen, herritarrarengandik hurbil dauden inguruneak bilatzen ditugu, erakusteko zer-nolako onurak dituen keinu soil batek –birziklapenak– ingurumena zaintzeko, eta era berean, gure herrialdeko sare ekonomikoa garatzeko eta enplegu berdea sortzeko.

Dena dela, herritarrak kontzientziatzeaz gain, bestelako lan bat ere da funtsezkoa. Adibidez, guztiz funtsezkoa da enprekin lan egitea birziklapenaren gizarterantz aurrera egiteko; batez ere, prebentzioaren arloan. Horrela, ekonomia zirkularrean oinarrituriko garapen eredu bat bultzatzea helburu harturik, 1999tik ari gara enpresak laguntzen ekodiseinua sustatzeko, haien ontziak iraunkorragoak izan daitezzen eta ingurumena gehiago errespetatu dezaten.

Horren haritik, 2012-2014 urteetan guk abian jarritako V. Prebentzio Planaren barruan, 62 enpresa nafarrek 212 neurri ezarri zituzten ekodiseinua bultzatzeko, eta horren eraginez, 1.284 tona lehengai baino gehiago aurreztu dira.

• Zure ustez, zein dira ekonomia zirkularren neurriek eduki ditzaketan eraginik garrantzitsuenak?

Agiri horrek bildu ditu produktuen bizitza-ziklo osoa kontuan hartzen duten ekimen zehatzak (prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena). Neurri horiek oso barnerratuak ditugu Ecoembesen.

Munta handiko ekintza sorta hori giltzarria da Europa abangoardian kokatzeko, bai ingurumenaren babesean, bai lehiakortasunean, bai enplegu sorreran. Gure erakundearen ekonomia zirkularren alde egin dugu eta neurriak oso ontzat jo ditugu. Horrela, bat egiten dugu birziklapenean 2030erako ezarri diren helburuekin (% 75 ontzietarako, eta % 65, hondakin guztietarako). Izan ere, gaikako bilketaren aldeko apus-

tuak garapen-eredu iraunkorra lortzea ekarriko du.

Halaber, beste asmo bat ere jodugu ontzat, hau da, birziklapen portzentajeak Europar Batasun osoan kalkulatzeko metodoak hobetu eta bateratzeko asmoa, eta ontzat jo ere, material birziklatuen aplikazio berriak bilatzea, berrikuntza eta teknologia oinarri harturik. Lan arlo hori funtsezkoa da irizpide orokorrak ezartzeko; irizpideok era koordinatuan aurrera jotzen lagunduko digute, eta horrela, emaitza hobekak lortuko ditugu. Testuak ere badu bestelako alderdi fun-

tsezkorik, hots, Europako Batzordeak apustua egin baitu Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduaren ereduaren alde, eta horrekin batera, neurriak bultzatu izana, gaikako bilketatik datozen materialak zabortegetan onartuak ez izateko.

Ekonomia Zirkularren aldeko neurrien helburu nagusiarekin bat, konpromiso irmoa dugu 2020an % 80 birziklatzeko; horrela, iraunkortasunean oinarrituriko gizartea eraikiko dugu, klima-aldaketaren ondorioak geldiarazteko aukera izan dezagun. ●



Silvia Ayerbe

Ecoembesko Hitzarmen Garapeneko zuzendaria

José Pérezekin solasean, Recyclia ingurumen plataformako kontseilari delegatua



Zure ikuspegitik, eta 2020ari begira, zer erronka ditugu TEEHetan, oro har? Eta Nafarroan? Zalantzarik gabe, Estatuan nahiz autonomietan, erronkarik handiena da tresna elektriko eta elektronikoei buruzko Errege Dekretu berriak ezarritako helburu berriak betetzea. Zehazki, pasatu gara biztanle eta urte bakoitzeko 4 kilo jasotzetik, aurreko hiru urtean merkatuan jarritako tresnen batez besteko pisuaren % 45era, 2016tik

Recyclian lanean ari gara, etorkizunean hondakinen % 100 aprobetxatzeko, ingurumenean inolako eraginik sortu gabe

aurrera. Munta handiko aldaketa bada ere, hori egokiagoa zaio TEEHen hazkundearen egungo erritmoari, eta halaber, xede nagusiari erantzuten dio, hau da, 2019an bildu nahi dira ia sortzen diren hondakin guztiak, dela salgai jarritako tresnen % 65, dela ekoizten direnen % 85.

Hori lortze aldera, birziklapenaren katean ari diren eragile guztien ekarpena behar da, eta Errege Dekretuak lankidetzara hori azpimarratu du. Horren haritik, lan nekosoa dugu egiteko, legezko kudeaketa bide guztiak sisteman txertatze aldera. Gainera, tresna elektronikoen birziklapena lehen-tasunezko jarduera da gaur egun, bai ekonomikoki bai sozialki, eta era berean, barometro ona da herrialde baten lehiakortasun nahiz ongizate maila definitzeko. Beraz, premiazkoa da ezabatzea gure herrialdean hondakin kilo gehiagoren kudeaketa tratatzen duten

gabeziak; besteak beste, ikuskaritza eta kontrol bitarteko eragin-korrangoak ezarri behar dira krisiak larriagotu dituen praktikak bukatzeko. Garbiguneetan gertatzen diren lapurretez mintzo naiz, kanibalizazioaz, eta hondakinen kudeaketa iruzurtiaz edota hondakinak legez kontra beste herrialde batzuetara esportatzeaz, hau da, legeria ez horren zorrotzak dituzten edota kudeaketa sistematik ez duten herrialdeetara.

Nola lantzen dituzte TEEHen SCRAPeek kudeaketaren hierarkia maila ezberdinak? Komeni da esatea SCRAPeek lehenago Kudeaketa Sistema Integratua (SIG) esaten zitzaizela, eta gu hondakin elektronikoen bildu eta birziklatzeko sarea antolatu eta finantzatzeaz arduratzen garela. Hierarkiaren printzipioak beste bi maila ere aurreikusten ditu, prebentzioa, eta batez ere berrerabilpena, eta horiei dagokienez, eragileekin ari gara harremanetan jartzen, de-non artean koordinatzeko eta Errege Dekretuak tresna-kategoria batzuetarako ezarritako helburuak



betetzen laguntzeko 2017tik aurrera, hau da, % 2 eta % 3 artean.

Recyclian lanean ari gara, etorkizunean hondakinen % 100 aprobetxatzeko, ingurumenean inolako eraginik sortu gabe, dela hondakinak birziklatuz dela berrerabiliz. Era berean, defenditzen dugu biak ere garapen ekonomikorako iturri direla; hori guztia indartzeko giltzarria behar bezalako oreka aurkitzea da, hazkunde-eredu iraunkorra sustatze aldera.

Zer eragin ditu TEEHei buruzko Errege Dekretuak TEEHen SCRAPen jardueretan? Errege Dekretu berriak ikuspegi aldaketa dakar, Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduaren ereduaren ordez (kutsatzen

Elkarrizketa Recycliari

duenak ordaindu egiten du) Erantzukizun Partekatua printzipioa ezarri baitu. Eredu berriak tarteko eragileei eman die sarrera, baina ez ditu derrigorrezko helburuen betekizunaren erantzule egiten, ezta finantzaketaren erantzule ere, horrek gure eskumenekoa izaten jarraitzen baitu, nahiz eta ez dugun behar den kontrol ahalmenik, ez gainerako eragileen gainean, ez hondakin-fluxuen gainean.

Hala ere, eta arestian esan dudan bezala, beharrezkoa da legezko kudeaketa bide guztiak sisteman txertatzea, horrekin ados gaude, eta ontzat jo dugu Errege Dekretu berriak funtsezko kontuak ezartzea hondakin gehiago kudeatzeko eta praktika txarrak ezabatzeke. Gure jarduerari dagokionez, adibidez, erantzukizun berberak eskatuko zaizkie onlineko banatzaileei eta banatzaile fisikoei, eta ekoizleek ordezkari bat izan beharko dute (idatziz baimendutakoa) tresnak merkaturatzeko eta finantza-berme bat emateko, lehia desleialik izan ez dadin, eta

TEEHen kudeaketa gastuak ez dituzaten ordaindu, ez gizarteak, ez beste fabrikatzaile batzuek.

Zure ustez, zein dira ekonomia zirkularraren neurriek eduki ditzaketen eraginik garrantzitsuenak?

Ekonomia Zirkularraren proposamenaren aplikazioa funtsezkoa da kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko eta hiri meatzaritza deritzona dinamizatzeko. Zenbakien bidez azaltze aldera, nabarmendu behar da hondakinak kudeatzeko sektoreak sortzen duela enplegu berderik gehien gure herrialdean; % 27 inguru. Gainera, Europako

Batzordearen arabera, Ekonomia Zirkularraren oinarrituriko eredu bat ongi aplikatzearen ondorioz, 400.000tik gora lanpostu berri sortuko dira birziklapenaren sektorean, Europan, 2020ra arte; horietarik, 50.000 lanpostu Espainian. Beraz, hori dela eta, beste neurri batzuen artean, zaborte-gian ezabatzen diren hondakinak % 5eraino murriztearen aldekoak gara gu, Batzordeak proposatu duen % 10en aurrean, zeren, kutsadura ezabatzeke bitarteko bat izateaz gain, birziklapenak hamar aldiz lanpostu gehiago sortzen baititu. ●



José Pérez

Recyclia ingurumen plataformako kontseilari delegatua

Etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa, 2015eko balantzea

Nafarroak, 2015ean, 266.530 tona sortu zituen etxe-ko eta merkataritzako hondakinetan; hau da, 2010ean baino % 5 gutxiago, urte hori hartu baita erreferentziatzat murrizketa neurtzeko. Dena dela, krisiaren ondorioz 2008an hasitako hondakin jaitsierak lehen aldiz aldatu du beheranzko joera eta handitu da. Horrela, 2015ean, sei kilo gehiago sortu ditugu buruko 2014an baino. Horrek esan nahi du egunero 1,14 kilo sortzen dugula, hau da, 416 kg buruko urtean. Nafarroako Hondakinen Planean ezarritako helburuak betetze aldera, ahalegin handia egin beharko dugu hondakin gutxiago sortzeko. Izan ere, 2027an, Nafarroak 386 kg-ra jaitsi beharko ditu etxe-ko hondakinak biztanleko eta urteko; hau da, gaur egun baino ehuneko zazpi gutxiago.


Bestalde, poliki-poliki igo dira berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta balorizazioa, eta sortu di-

Etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa, 2015eko balantzea

ren etxe-ko hondakin guztien % 33ra iritsi dira. Guztira, 96.570 tona hondakin bildu dira gaika, 2015ean. Hori hein handia zor zaio bio-hondakinen gaikako bilketa bederatzi mankomunitatetan ezarri izanari, eta era berean, autokonpostajea igo izanari, horri esker gai organiko gehiago birziklatzen baita zaborte-gira eraman ordez.

Izan ere, gai organikoaren gaikako bilketa (autokonpostajea barne) biztanleriaren % 46ra zabaldu da, eta gurean sortutako bio-hondakin guztien % 23 biltzen dute. Horrela, Nafarroako Hondakinen Planean ezarritako helbururantz ari gara aurrera jotzen, hots, gai organikoen % 70 bildu beharra.

Bestalde, zaborte-gira etxe-ko hondakinen % 57 eraman dira. Kopuru hori mailaka ari da jaisten, berrerabilpenerako prestaketa eta birziklapena gora doazen heinean.




NAFARROAKO HONDAKINAK ZENBAKIETAN

HONDAKIN SORKUNTZA 2015




EZABAKETA 2015




Etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa, 2015eko balantzea

ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINEN SORRERA. Kg./bizt.urte



ETXEKO HONDAKINEN EZABAKETAREN BILAKAERA ALDERATUA EUROPAN, ESPAINIAN ETA NAFARROAN (2008-2015)




NAFARROAKO HONDAKINAK ZENBAKIETAN

BIRZIKLATUA 2015




Etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa, 2015eko balantzea

ETXEKO HONDAKINEN BIRZIKLAPENAREN BILAKAERA ALDERATUA EUROPAN, ESPAINIAN ETA NAFARROAN (2008-2015)



ITURRIA: EUROSTAT, AEMA ETA GUK EGINA

EZABAKETA ZABORTEGIRA ERAMATEA



ITURRIA: SIG eta GUREA

LEGEAK ETA NAFARROAKO HONDAKINEN PLANAK EZARRITAKO HELBURUAK, ETA NORAINO BETE DIREN

1 ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINEN PREBENTZIOA

ETXEKO HONDAKINEN PREBENTZIOA (%)	2015	HELBURUAK		BETETZE MAILA
		2020*	2027**	
MURRIZKETA (2010. urtearekiko)	%5	%10	12%	
PREBENTZIOA (2010. urtearekiko)	%0,14	%10		

(*) Hondakinei buruzko 22/2011 Legea, eta Hondakinak Kudeatzeko Estatuko esparru Plana, 2016-2022 (PEMAR)

(**) Nafarroako Hondakinen Plana 2017-2027 (NHP)

Se cumplen objetivos En proceso No se cumplen objetivos

2 BERRERABILPENERAKO PRESTAKETA: EHUNAK, TEEHak, ALTZARIAK eta KONPONDU DAITEZKEEN BESTE HONDAKIN BATZUK

2015	RECOGIDO (t)	PREPARACIÓN PARA LA REUTILIZACIÓN		HELBURUAK		BETETZE MAILA
		t	%	2020*	2027**	
TAMAINA HANDIKOAK, TEEHak, EHUNAK ETA BESTE BATZUK	11.614	688	0,3%	%2		
TAMAINA HANDIKOAK	9.081	433	4,8%		%18	

(*) PEMAK ETA NHP (etxeko hondakin guztien aldean)

(**) NHP. Tarteko helburua: % 12 2022rako (bildutako tamaina handiko guztien aldean).

LEGEAK ETA NAFARROAKO HONDAKINEN PLANAK EZARRITAKO HELBURUAK, ETA NORAINO BETE DIREN

3

BIO-HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA (*) ETA
AUTOKONPOSTAJEA

	BILDUTAKO KOPURUA (%)	HELBURUAK		BETETZE MAILA
		2020*	2027***	
2015	%23			☹️
2014	%19	%50	%70	☹️
2013	%18			☹️

(*)Gaika Bildutako Gai Organikoa eta Frakzio Berdea
(**)22/2011 Legea eta NHP - (***) NHP

😊 Se cumplen objetivos ☹️ En proceso ☹️ No se cumplen objetivos

BIZTANLERIA
PARTE-HARTZAILEA

	Biztanleriaren parte-hartzea (%)	HELBURUAK		BETETZE MAILA
		2020*	2022***	
2015	%46	%75	%100	☹️

(*)Gaika Bildutako Gai Organikoa eta Frakzio Berdea
(**)22/2011 Legea (***) NHP

😊 Se cumplen objetivos ☹️ En proceso ☹️ No se cumplen objetivos

DESEGOKIAK GAIKA
BILDUTAKO FRAKZIOAN

	DESEGOKIAK* (%)	HELBURUAK		BETETZE MAILA
		2020*	2027**	
2015	< 5%			😊
2014	< 5%	%10		
2013	< 5%			

(*)Jurramendi izan ezik, desegokiekin > % 20
(**) NHP

😊 Se cumplen objetivos ☹️ En proceso ☹️ No se cumplen objetivos

Desegokiak % 5 baino gutxiago dira, Jurramendin
izan ezik, % 20 baitira.

LEGEAK ETA NAFARROAKO HONDAKINEN PLANAK EZARRITAKO HELBURUAK, ETA NORAINO BETE DIREN

4

ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK BERRERABILPENERAKO PRESTATZEA

% 2015	HELBURUAK			BETETZE MAILA
	2020*	2027**	2030***	
%33	%50	%75	%70	

(*)Gaika Bildutako Gai Organikoa eta Frakzio Berdea

(**)22/2011 Legea eta NHP

(***) NHP 2000/53/CE (IEK), 2006/66CE (pilak), eta 2012/13/EB (TEEH), (Zuzentarau Proposamena)

Se cumplen objetivos En proceso No se cumplen objetivos

5

ZABORTEGIRA ERAMATEN DIREN HONDAKIN BIODEGRADAGARRIAK

% 2015	HELBURUAK		BETETZE MAILA
	2016*	2027**	
%46	%35	%5	

(*)1481/2001 Errege Dekretua. PEMAR Planean, horrelako hondakinek % 12 murriztea 2012az geroztik.

(**) NHP

Se cumplen objetivos En proceso No se cumplen objetivos

6

ONTZIEN BIRZIKLAPENA

ONTZI BIRZIKLATUAK % 2015	HELBURUAK	BETETZE MAILA
	2027*	
% 80	%85	

Se cumplen objetivos En proceso No se cumplen objetivos

7

UDAL HONDAKINAK ZABORTEGIAN EZABATZEA

% 2015	HELBURUAK		BETETZE MAILA
	2020*	2027**	
%57	%35	%25	

(*) PEMAR eta NHP

(**) NHP

Se cumplen objetivos En proceso No se cumplen objetivos



Nafarroako Hondakin Aldizkaria
